



ORMAIZTEGIKO  
UDALA

**ORMAIZTEGIKO UDALEKO ADMINISTRAZI PLAZA BETETZEKO HAUTAKETA  
PROZESUAREN EPAIMAHAIAREN 2. BILKURAKO AKTA**

**Eguna: 2024ko azaroaren 27a.**  
**Ordua: 09:00**  
**Tokia: Ormaiztegi Udaletxea.**

**BERTARATUAK:**

Lehendakaria: Martin Iparragirre Mujika jauna

Bokalak:  
Miren Jasone Telleria Arrizabalaga andrea  
Amaia Arotzena Altuna andrea  
Gemma Sarasua Gaztelumendi andrea

Idazkaria: Miren Begoña Antxustegi Bengoetxea andrea

**BERTARATU EZ DIRENAK:**  
Inor ez

**LEHEN PUNTUA: AURREKO AKTA ONARTZEA.**

Idazkariak hitza hartu eta galdetu du ea epaimahaikide guztiek jaso duten emailer bidali zitzairen akta proposamena. Erantzuna baiezkoa izan da. Ondoren, aukera eman zaie oharrak edo zuzenketa eskariak aurkezteko baina ez da horrelakorik izan. Bozkatzeari ekin zaio eta ahobatez onartu da.

Bilkurari hasiera eman zaio, honako gai zerrenda honen arabera:

- Azterketen emaitzak adostea eta argitaratzea.
- Bigarren azterketaren diseinua prestatzea eta adostea
- Bigarren azterketaren eta epaimahaiaren hurrengo bilkuraren data eta gai zerrenda zehaztea.
- Erreguak eta galderak.

**BIGARREN PUNTUA: AZTERKETEN EMAITZAK ADOSTEA ETA ARGITARATZEA.**

Epaimahaikideek hautagai bakoitzaren bi probak irakurri dituzte, proba bakarra egin dutenen kasuan izan ezean, eta bakoitzak bere puntuazio proposamena aukeztu eta arrazoitu du. Ondoren, epaimahai osoak azterketak banan-banan berraztertu ditu, kontsentsuz emaitza bakoitza erabakiz.



Hori horrela, eta eztabaida amaiturik, bozketari ekin zaio, eta batzordekide guztien aldeko botoarekin, epaimahaiak ahobatez zera

### ERABAKI DU

**LEHENA:** Lehenengo ariketaren emaitzak argitaratzea.

#### 1. ARIKETAREN EMAITZAK (1. eta 2. probaren batura)

| Erregistroko sarrera zenbakia | Nortasun Agiria | GAINDITU DU | EMAITZA (Gehienez, 25 puntu) |
|-------------------------------|-----------------|-------------|------------------------------|
| 385                           | ***0287**       | BAI         | 14,00                        |
| 390                           | ***5963**       | EZ          | 00,00                        |
| 397                           | ***7051**       | EZ          | 09,00                        |
| 399                           | ***3328**       | BAI         | 24,50                        |
| 403                           | ***4899**       | BAI         | 14,50                        |
| 407                           | ***5555**       | BAI         | 12,75                        |
| 436                           | ***4384**       | EZ          | 06,00                        |
| 437                           | ***9381**       | EZ          | 00,00                        |

**BIGARRENA:** Interesatuei hiru laneguneko epea ematea erreklamazioak aurkezteko (abenduaren 2tik abenduaren 4ra, biak barne).

#### **HIRUGARREN PUNTUA: BIGARREN AZTERKETAREN DISEINUA PRESTATZEA ETA ADOSTEA**

Epaimahaikideek beste antzeko prozesu batzuetan erabilitako proba praktikoak aztertu dituzte eta proba horretan erakutsi behar den ezagupenaren inguruan eztabaidatu dute. Ondoren, ariketak izan behar duen edukia eta bete behar dituen helburuak argi dituztela, azterketa prestatu dute eta adostu.

Hori horrela, eta eztabaida amaiturik, bozketari ekin zaio, eta batzordekide guztien aldeko botoarekin, epaimahaiak ahobatez zera

### ERABAKI DU

**LEHENA:** Bigarren ariketaren edukia eta puntuen banaketa.

#### **LAUGARREN PUNTUA: BIGARREN ARIKETAREN ETA EPAIMAHAIAREN HURRENGO BILKURAREN DATA ETA GAI ZERRENDA ZEHAZTEA.**

Epaimahaikideek kontuan izan dituzte erreklamatzeko epea, azterketa iragartzeko epea eta bakoitzaren agenda datak finkatzeko orduan. Eztabaidatu ondoren, guztien adostasunarekin, Epaimahaiak ahobatez zera





## ERABAKI DU

**LEHENA:** Gainditu duten izangaiak oposaketa faseko 2. ariketa egiteko deitzea, Ormaiztegi "Eskola Zaharrak" Gizarte Etxean, 2024ko abenduaren 18an, goizeko 10:00etan.

**BIGARRENA:** Epaimahaia abenduaren 18an bertan elkartzea Udaletxeko Batzar Aretoan goizeko 13:00etan bigarren ariketa zuzentzeko eta emaitzak argitaratzeko.

### **BOSTGARREN PUNTUA: ERREGUAK ETA GALDERAK.**

Ez da inongo erregu edo galderarik aurkeztu.

Eztabaidarako gaiak amaiturik, Lehendakariak bilkura amaitutzat eman du, goizeko 13:00 orduak direnean, eta nik, Idazkaria naizen honek, gertatutakoaren konstantzia gera dadin, akta hau luzatzen dut, bertan jasotakoa egiazko dela fede emanez.

Ormaiztegin, 2024ko azaroaren 27an.

Epaimahaiko lehendakariak

Epaimahaiko idazkariak

